

**KULTURA GARAIKIDEAREN NAZIOARTEKO ZENTROA, SA  
SOZIETATE PUBLIKORAKO 32/2021 LEGEGINTZAKO  
ERREGE-DEKRETUAREN LAUGARREN XEDAPEN  
GEHIGARRIAN JASOTAKO BIRJARTZE-TASA  
ESPEZIFIKOKO PROGRAMA ARDURADUN LANPOSTUA  
HAUTATZEKO PROZESUAREN OINARRI ARAUTZAILEAK,  
2024 EKITALDIRAKO.**

**LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA.**

---

Deialdiaren xedea Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa SA erakundean (aurrerantzean KGNZ) oinarri hauen bigarren klausulan adierazitako lanpostua kontratatzea da.

Deialdia publikoa eta irekia da, eta langileak hautatzeko LKS S.COOP. enpresak kudeatuko du hautaketa-prozesua, dokumentu honetan jasotako betekizunekin eta berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioekin bat.

Kontratazioa lanaldi osoan egingo da, lan-kontratu mugagabearen modalitatean, Langileen Estatutuan xedatutakoarekin bat.

Lanpostuen 2024ko ordainsaria oinarri hauen 1. eranskinean adierazitakoa da.

**BIGARRENA. IRAGARRITAKO PLAZAK.**

---

Plaza hau iragarriko da:

LANPOSTUA / PUESTO	LANPOSTU HUTSEN KOPURUA N.º VACANTES
Programa-arduraduna Responsable de programa	1

**HIRUGARRENA. PARTE HARTZEKO BETEKIZUN ETA BALDINTZA OROKORRAK.**

---

Onespena jaso eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuan parte hartzeko, betekizun baztertzailerik hauek bete beharko dira hautagaitzak aurkezteko epearen amaieran:

A) Nazionalitatea: Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea edukitzea edo estaturen bateko nazionala izatea, Europar Batasunak sinatutako eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunekin bat, baldin eta aplikagarria bada langileen zirkulazio askea.

Halaber, parte hartu ahal izango dute aurreko paragrafoan sartzen ez diren atzerritarrek, baldin eta legezko bizilekua badute Espainiako estatuan. Hautatzen badituzte, kontratuaren xede-jarduera egiteko administrazio-baimena izan beharko dute hura formalizatu aurretik.

B) Hamasei urte bete izana eta, hala badagokio, ez gainditzea nahitaezko erretirorako gehieneko adina kontratua formalizatzeko egunean.

C) Titulazioak lortzeko eskubideak eduki edo ordaindu izana eta behar bezala egiaztatzea 2. eranskinean adierazitako betekizun espezifikoaren apartatuan eskatutako hizkuntza-mailak eta esperientzia profesionala.

Betekizunak bete beharko dira kontratua sinatu arte, eta, edozein unetan, prozesutik kanpo gelditu ahal izango dira betekizunak betetzen ez dituzten hautagaiak.

## **LAUGARRENA. JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA.**

---

### **BARNEKO FASEA**

Kanpoko hautaketa-prozesuak ireki aurretik, lehenik eta behin barneko faseko hautaketa-prozesua abiaraziko da, KGNZko langileek aukera izan dezaten hautagaitzak aurkezteko, legezko aukeren barruan eta betiere, tituluak eta gaitasunak egiaztatzeaz gain, oinarri hauetan jasotako betekizunak betetzen badituzte.

Barneko faseari hasiera emateko, barneko hautagaitzak aurkezteko epea irekiko da **2024ko uztailaren 5an**.

Barneko hautagaitzak aurkezteko epea 7 egutegi-egunekoa izango da, eta **2024ko uztailaren 12ean** amaituko da.

Dokumentazioa posta elektronikoki bidez aurkeztuko da, **tabakalera@lksnext.com** helbidean, oinarri hauekin batera argitaratutako lanpostuari dagokion erreferentzia adierazita.

Barneko faseko eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, berrikusi egingo dira, lanpostu bakoitzerako eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko, eta akats zuzengarriak zuzentzeko izapideak abiaraziko dira; horretarako, hiru egun balioduneko epea emango da, zuzenketaren jakinarazpen-datatik aurrera.

Barneko fasea ireki ondoren ez badago barneko hautagaitzarik, edo hautaketa-prozesuaren ondoren, ez badira egokitzen jotzen ez dituztelako lanposturako betekizunak betetzen eta/edo ez direlako egokitzen eskatutako profilerak, kanpoko faseko hautaketa-prozesua irekiko da, oinarri hauetan jasotakoarekin bat.

Hautaketa-prozesuko proben edukia berdina da barneko faseko eta kanpoko faseko hautaketa-prozesuetan.

Kanpoko fasearen moduan, barneko fasean ere hautagaien amaierako kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuak batuta finkatuko da, eta behin betiko sailkapen-ordena hautagaiek barneko fasean lortutako puntuak batuta finkatuko da, hautaketa-prozesuko faktoreen analisisian; horrek finkatuko du lehentasun-ordena.

Edonola ere, kanpoko aholkularitza-enpresak, egindako probetan oinarrituta, erabakiko du beharrezkoa den ala ez deialdia KGNZtik kanpoko pertsonentzat irekitzea. Kasu horretan, barneko hautagaiei jakinaraziko zaie, posta elektronikoko bidez, barneko hautaketa-prozesua itxi dela.

Erreklamazioak aurkezteko epea 3 egun balioudunekoa izango da, mezu elektronikoa jasotzen denetik aurrera.

Barneko faseko hautaketa-prozesua amaitu ondoren, hala badagokio, zerrendak argitaratuko dira eta jakinaraziko da barneko faseko hautaketa-prozesua irekiko dela, KGNZaren webgunearen bitartez.

## **KANPOKO FASEA:**

Hautaketa-prozesuen kanpoko faseari hasiera emateko, hala badagokio, kanpoko hautagaitzak aurkezteko epea **2024ko uztailaren 19an hasiko da**.

Kanpoko hautagaitzak aurkezteko epea, hala badagokio, **2024ko irailaren 13an** amaituko da.

## **LAUGARRENA BIS. HAUTAGAITZAK AURKEZTEA**

---

### **BI FASEEN ALDERDI KOMUNAK**

Eskabidea aurkeztean, hautagaiak onartu egiten ditu deialdiaren oinarriak.

Hautaketa-prozesuan zehar gorabehera edo kontsultarik izatekotan, hautagaiak, bai barneko fasean eta bai kanpokoan, harremanetan jar daitezke kontsulta-kanal honekin: **tabakalera@lksnext.com**.

Prozesuaren barneko eta kanpoko fasean aurkezten direnek, gutxienez, honako dokumentazio hau bidali beharko dute:

- Curriculuma
- NANaren, AIZaren edo pasaportearen fotokopia (hala badagokio, lan-baimenarekin batera).
- Eskatutako titulazioen ziurtagiriak (titulazio akademikoa eta hizkuntzak, eskatuz gero).
- Euskara-mailaren ziurtagiri edo egiaztagiria, izatekotan.
- Lan-bizitzaren txostena.

- Lan-esperientzia baloratu ahal izateko ziurtagiri edo egiaztagiriak, besteak beste honako hauek identifikatzen: hasiera- eta amaiera-datak, kategoria profesionala, lanpostua eta betetako funtzio nagusiak.
- Curriculumean aurkeztutako titulazioen ziurtagiriak.

Hautagai guztiek helbide elektronikoa izan beharko dute, aholkularitza-enpresak prozesuarekin lotutako argitalpen berrien jakinarazpenak egin ditzan.

Hautagaitzak posta elektronikoa bidez aurkeztu beharko dira, dagokion eskabidea aurkeztuta helbide honetan: tabakalera@lksnext.com, lanpostuari dagokion erreferentzia adierazten, oinarri hauen 2. eranskinean jasotakoarekin bat.

## **BOSGARRENA. KANPOKO FASEKO HAUTAGAIK ONARTZEA.**

Kanpoko hautagaitzak aurkezteko epea amaitu eta hamar eguneko epean, onartu eta baztertutako hautagaitzen behin-behineko zerrendak argitaratuko dira. Akats zuzengarriak zuzentzeko eskabideak aurkezteko epea 3 egun baldioduneko izango da, behin-behineko zerrendak argitaratzen diren egunetik zenbatzen hasita. Behin betiko zerrendak 5 egun baldioduneko epean argitaratuko dira, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

Zerrendetan pertsonen NANaren azken 4 zenbakiak eta letra jasoko dira, eta KGNZren eta kanpoko aholkularitza-enpresaren webgunean argitaratuko dira.

Sartzeko betekizunak urratzeagatik behin betiko baztertutako pertsonen zerrenda eta baztertzeko arrazoiak interesdunei jakinaraziko zaizkie, eskabideetan adierazitako helbide elektronikoaren bidez.

Baztertu egingo dira osatu gabeko eskabideak, epea kanpo jasotakoak eta beste edozein modutan jasotakoak. Halaber, baztertu egingo dira oinarrietan eskatutako betekizunak betetzen ez dituzten hautagaiak.

## **SEIGARRENA. HAUTAKETA-PROZESUA.**

Hautaketa-sistemak hiru (3) fase izango ditu:

### **1. FASEA:**

1. Proba psikoteknikoak. Adimen orokorrari, serie logikoei eta gaitasunei buruzko proba-sorta.

2. Idatzizko hizkuntza-proba eskatutako maila egiaztatu ez duten pertsonentzat.

3. Hautagaiak eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduen azterketa eta balorazioa.

4. Ahozko hizkuntza-proba eskatutako maila egiaztatu ez duten pertsonentzat.

Hizkuntza-probak nahitaezkoak eta baztertzailerak izango dira hizkuntza-maila jakin bat eskatzen duten lanpostuetako plazak lortu nahi dituzten eta eskatutako mailaren egiaztagiriko edo titulu ofizialik aurkezten ez duten hautagaienentzat. Probaren bidez, hizkuntzen ezagutza finkatu eta egiaztatuko da, dagokion mailan.

Ez da beharrezkoa izango ziurtagiri akademikoa aurkeztea euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta hizkuntza-titulu eta -ziurtagiriek egiaztatzenetik salbuesteari buruzko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aurreikusitako egiaztatze salbuespenen kasuan, salbuespen hori jasota dagoenean Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan.

Aukera horretatik salbuetsita daude eta dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da, aipatutako 47/2012 Dekretuan jasotako egiaztatze salbuespenen kasuan, ez daudenean jasota aipatutako Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan.

1. fasea 40 hautagairik baino gehiagok gainditzen badute, 2. fasera igaroko dira soilik puntuazio handiena lortu duten 40ak.

## **2. fasea:**

Gaitasun-elkarrizketa: curriculum-elkarrizketa baten bidez, lanpostuarekin lotutako kudeaketa-gaitasun teknikoak baloratuko dira. Langileak hautatzeko aholkularitza-enpresak egingo du elkarrizketa.

3. fasera igaroko dira 2. fasean gutxienez puntuen erdia lortu duten hautagaiak (gutxienez 10 puntu eta gehienez 20).

## **3. fasea:**

Kanpoko aholkularitza-enpresak dinamizatutako elkarrizketa, non parte hartuko duen KGNZk izendatutako batzorde espezifikoko batek. Elkarrizketan, hautagaien erakundera eta lanpostura egokitzeko gaitasuna ebaluatuko da.

## **SEIGARRENA BIS. HAUTAKETA-PROZESUAREN KALIFIKAZIOA.**

---

1. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa finkatzeko, 1. eranskinean jasotako puntuazioen baremoaren arabera emandako puntuak batuko dira.

2. Hizkuntza-probak “gai” edo “ez-gai” gisa kalifikatuko dira, lanpostu bakoitzerako finkatutako hizkuntza-mailaren betekizunari begira.

3. Hautagaien amaierako kalifikazioa finkatzeko, hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuak batuko dira.

## **SEIGARRENA TER. LAN-POLTSA**

---

Lanpostu honetarako hautaketa-prozesu honetan EZ da lan-poltsarik sortuko.

## **ZAZPIGARRENA. LANEAN HASTEA.**

---

Behin betiko sailkapen-ordena finkatzeko, hautaketa-prozesuko faktoreen analisisian lortutako puntuak batuko dira, eta horrek finkatuko du lehentasun-ordena.

Hautatutako hautagaia lanean hasiko da sozietatean, eta haren araudia errespetatuko du.

Lanpostu berean zenbait zuzkidura eskaintzen badira, Kudeaketako Zuzendaritzak zehatz-mehatz esleituko ditu, behin betiko sailkapen-ordenarekin bat.

Lanpostuaren probaldia 6 hilabetekoa izango da, eta KGNZ arduratuko da lanean hasteko prozesuaren jarraipena egiteaz. Halaber, prozesua egokia bada, itxi egingo du, eta, hala ez bada, justifikazio-txosten bat emango du.

Interesdunek erabakia aurkaratu ahal izango dute gizarte-jurisdikzioaren aurrean.

Interesdunek, halaber, gizarte-jurisdikzioaren aurrean aurkaratu ahal izango dituzte oinarri hauek edo KGNZren erabakiak, hautaketa-prozesuaren izapideen ondoren, baldin eta parte-hartzaile bat kanporatzen badute prozesutik.

Proposatutako hautagaien batek ez badu aurkezten eskatutako dokumentazioa, KGNZk gaitzat jotako hurrengo hautagaia kontratatu ahal izango du, prozeduraren amaierako puntuazio-ordenarekin bat.

Nolanahi ere, behin betiko zerrendak argitaratu eta kontratazioa formalizatu aurretik, dokumentu originalak aurkezteko eskatu ahal izango da, hautaketa-prozesuan aurkeztutako dokumentazioarekin alderatzeko.

## **ZORTZIGARRENA. HAUTAGAIEKIKO KOMUNIKAZIOA.**

---

Hautaketa-prozesuan zehar, hautagaiekiko komunikazioa helbide elektroniko honen bidez bideratuko da: [tabakalera@lksnext.com](mailto:tabakalera@lksnext.com).

## **BEDERATZIGARRENA. DATUEN TRATAMENDUA.**

---

### **Datuen babesari buruzko informazioa:**

Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzko EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN 14. artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hau jakinarazten zaie hautaketa-prozesuan parte hartuko duten pertsonari:

- Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa SA (IFK: A-20762233) erakundea arduratuko da hautaketa-prozesuan parte hartuko duten pertsonen datu pertsonalak tratatzeaz.
- Honako hauek dira harremanetarako datuak:
  - Posta-helbidea: Andre zigarrogileak plaza 1, 20012 - Donostia (Gipuzkoa, Espainia) Telefono-zk.: 943 01 13 11
  - Helbide elektronikoa: pribatutasuna@tabakalera.eus
- Bildutako datu pertsonalak tratatu egingo dira, hautaketa-prozesua kudeatzeko xedearekin.
- Datuen tratamenduaren oinarri juridikoa hautaketa-prozesuan borondatez parte hartzen duten pertsonen baimena da. Beharrezkoa da parte-hartzaileek datu pertsonalak jakinaraztea hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko; beraz, ez badituzte horiek ematen, uko egingo diote prozesuan parte hartzeari.
- LKS S.COOP. erakundeak tratatuko ditu emandako datu pertsonalak, hautaketa-prozesua kudeatzeko erakunde laguntzaile gisa.
- Tratamenduaren xede izango diren datu pertsonalak gorde egingo dira hautaketa-prozesuan zehar.
- Interesdunek, haien datu pertsonalei dagokienez, datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko, tratamendua aurkaratu eta mugatzeko eta datuak eramateko eskubideak erabili ahal izango dituzte, araudi aplikagarrian ezarritako baldintzetan. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidaliko dute tratamenduaren arduradunaren posta-helbidera edo helbide elektronikora. Halaber, baimena kendu ahal izango dute edozein unetan, eta erreklamazio bat aurkeztu ahal izango dute kontrol-agintaritza eskudunaren aurrean, eskubideak erabiltzeko xedearekin.
- Hauek izango dira tratatuko diren datu pertsonalen kategoriak:
  - Identifikazio-datuak
  - Ezaugarri pertsonalak
  - Akademikoak eta profesionalak

Donostian, 2024ko uztailaren 1an

Xabier Reboredo Iñurrategui  
Kudeaketako zuzendaria

# 1. ERANSKINA

## KGNZren SOLDATA-TAULAK

\*Soldata-datuak lan-kategoriaren arabera: gordina urtean

KATEGORIAK	2024
Arduradun / Responsable	44.115,46 €

## PLAZA BETETZEKO PUNTUAZIO-IRIZPIDEAK

### FASEAK ETA PUNTUAZIOAK FASEKO

Hautagaien balorazioa fase hauetan egiten da:

1. FASEA: Gehieneko puntuazioa: 60 puntu
2. FASEA: Gehieneko puntuazioa: 20 puntu
3. FASEA: Gehieneko puntuazioa: 20 puntu

### BALORAZIO-IRIZPIDEAK:

#### 1. FASEA:

Gehieneko puntuazioa: 60 puntu

PROBA PSIKOTEKNIKOAK: 25 puntu gehienez

- a) Gaitasunen pertsonalitatearen proba psikoteknikoa (12,5 puntu). Proba hau zehazki diseinatuta dago arlo profesionaleko gaitasunei begira, lanpostuaren zenbait lan-alderditako jokaera adierazgarriekin lotuta.
- b) Proba psikoteknikoak. Adimen orokorrari, serie logikoei eta gaitasunei buruzko proba-sorta. (12,5 puntu).
- c) Idatzizko hizkuntza-proba eskatutako maila egiaztatu ez duten hautagaientzat. Probaren emaitza GAI/EZ-GAI izango da.

MEREZIMENDUEN BALORAZIOA: 35 puntu gehienez

Lanpostuari buruzko ezagutzak eta esperientzia baloratuko dira, hautagaiak metatu ahal izan dituztenak eta egiaztatu ahal izan dituztenak eta eskabideak aurkezteko datak baino lehenagoko data dutenak, jarraian jasotzen diren ataletan.



Berriaz emandako curriculumean jasotako esperientzia bakarrik berrikusi eta zenbatuko da. Aurkeztutako informazioa lan-bizitzaren, titulu ofizialen, enpresa-ziurtagirien eta erakunde jaulkitzaileen ziurtagirien bidez egiaztatu beharko da. Entregatzeko epea 2. Faseko probak egiteko eguna izango da.

### **Pareko edo antzeko esperientzia profesionala: (22,5 puntu)**

Hautagaiak deialdi honen xede den lanpostuaren pareko edo antzeko batean izandako esperientzia profesionala baloratuko da. Antzekoak izango dira eskainitako lanpostuari dagozkion koordinazio- eta exekuzio-jarduerekin harreman zuzena duten lanak.

Hori justifikatzeko, hautagaiak lan bakoitzean izandako esperientziaren banakapena aurkeztu beharko du, eginkizun nagusiak eta epea adierazita.

Egiaztapena administrazio-organoak, erakunde profesional korporatiboak edo jarduera egin den enpresa eskuduneko langileren batek egin beharko dute, lanpostuan egindako eginkizunak, kategoria eta lan-harreman juridikoa zehaztuta.

Gizarte Segurantzaren lan-bizitzari buruzko txostena entregatu beharko da. Txosten honetako datuak aurkeztutako gainerako dokumentazioaren gaineratik egongo dira.

Horri kalterik egin gabe, kanpoko aholkularitza-enpresak xehetasun eta justifikazio handiagoa eskatu ahal izango du atal honetan antzeko esperientziatzat hartutako lanei buruz. Denbora hori lan egindako egiaztatutako urteak betekizun baztertzailatzat hartu gabe zenbatuko da.

### **Lotutako prestakuntza: (7,5 puntu)**

Lanpostuaren ezagutza espezifikoa garatzera bideratutako prestakuntza espezifikoa baloratzen dugu.

Egiaztagiriek ordu-kopurua jaso behar dute.

Ikastaroak, mintegiak edo hitzaldiak, lanpostuaren ezagutza espezifikoeekin lotuta: egiaztatutako jarduera bakoitzean, 0,002 puntu emango dira orduko, eta gehienez ere 5 puntu.

Kanpoko aholkularitza-enpresak modu espezifikagoan zehaztu ahal izango du oinarrietan jaso ez den intereseko beste prestakuntza edo masterren bat, eta aurreko paragrafoetan ezarritako mugen arabera baloratuko da.

Halaber, kanpoko aholkularitza-enpresaren irizpideekin bat, baliteke ikastaroren bat ez baloratzea, baldin eta denboran errepikatu bada eta errepikapen horrek ez badu kualifikazio handiagorik ematen.

### **Hizkuntzak: (5 puntu)**

Puntu hauek lortzeko, beharrezkoa da titulazio ofiziala edo hizkuntzaren maila-proba

egiaztatzea.

Faktore hori 5 punturekin baloratuko da gehienez, eta hautagaiak egiaztatutako maila handiena baloratuko da irizpide hauekin bat. Ez dute punturik lortuko lanposturako eskatutako mailan egiaztatutako titulazioek.

Ingelesa:

- B2: 2 puntu
- C1: 3,5 puntu
- C2: 5 puntu

Proben eguna, tokia eta ordua kanpoko aholkularitza-enpresaren webgunean argitaratuko dira, eta interesdunei jakinaraziko zaizkie onartutako hautagaiek emandako helbide elektronikoen bidez.

## **2. FASEA:**

Gaitasun-elkarrizketa kanpoko aholkularitza-enpresarekin: Gehieneko puntuazioa 20 puntu

Gaitasun-elkarrizketa egituratua: elkarrizketa bakarra egiten da hainbat blokerekin, eta horretarako kontratatutako hautaketa-enpresak egiten du. Jarraitu beharreko eredia gaitasun-elkarrizketa egituratua izango da. Elkarrizketa-fase honetan, gaitasun-proba osatuko da eta, bertan, hainbat gaitasun baloratuko dira, gehienez ere 20 punturekin. Xede horretarako kontratatutako hautaketa-enpresak egingo du elkarrizketa. Modu zehatzean ebaluatu eta diskriminatuko da elkarrizketatutako hautagaiek lanpostua betetzeko ezaugarriak, trebetasunak eta portaerak behar bezala betetzen dituzten.

Elkarrizketa horietan honako gaitasun eta faktore hauek neurtzen dira 3 maila (oinarrikoa, ertaina eta altua) dituen eskala batean, 1etik 9ra bitarteko puntuazioarekin. Gaitasun guztiek pisu erlatibo berdina izango dute. Puntuazio osoa 20 puntukoa da.

Gaitasun hauek ebaluatuko dira:

- Komunikatzeko gaitasuna eta asertibitatea
- Emozioen kudeaketa/heldutasuna
- Sormenezko pentsamendua
- Antolatze gaitasuna (ordena, plangintza, antolaketa)
- Pragmatismoa/Atazarako ikuspegia
- Emaitzetara eta lorpenera orientatzea
- Hobekuntzara, berrikuntzara eta kalitatera orientatzea
- Ekimena eta proaktibitatea
- Arazoak konpontzeko gaitasuna eta autonomia
- Ikasteko gaitasuna

### **3. FASEA:**

Elkarrizketa KGNZk izendatutako batzordearekin: Gehieneko puntuazioa 20 puntu.

Gaitasun hauek baloratuko dira:

- Ikuspegi globala
- Malgutasuna
- Polibalentzia
- Postuarekiko motibazioa
- Erakundera egokitzeko gaitasuna
- Lanpostuarekin lotutako ezagutza teknikoak

Gaitasuna 3 maila (oinarrizkoa, ertaina eta altua) dituen eskala batean neurtzen dira. Fase honetan gehieneko puntuazioa 20 puntu da. Gaitasun guztiek pisu erlatibo berdina izango dute.

### **BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK**

Berdinketa hausteko irizpideak ordena honetan aplikatuko dira:

1 - Erakundean eta iragarritako lanpostuan denbora gehien eman duen hautagaia. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunen arabera zenbatuko da.

2 - Erakundean denbora gehien eman duen hautagaia. Egunen arabera zenbatuko da.

3 - Zenbait erakundetan denbora gehien eman duen hautagaia, iragarritakoaren pareko plazan edo baliokidean. Ez da kontuan hartuko puntuazio-muga, eta egunen arabera zenbatuko da.

4 - Zozketa publikoa.

## 2. ERANSKINA

LANPOSTUA / PUESTO	LANPOSTU HUTSEN KOPURUA Nº VACANTES	ERREFERENTZIA / REFERENCIA
Programa-arduraduna Responsable de programa	1	TAB05_2024

### LANPOSTUEN OINARRIZKO EZAUGARRIAK

- **KATEGORIA**
- **LANPOSTUAREN ORDAINSARIA**
- **LANPOSTURAKO BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK**
- **LANPOSTUAREN DESKRIPZIO NAGUSIA**

## **LANPOSTUA: PROGRAMA ARDURADUNA**

**Erreferentzia: TAB05 2024**

### **KATEGORIA**

Lanpostuaren kategoria Arduradunarena da, KGNZren kategoria eta lanpostuen egungo sailkapenaren arabera.

Kontratazioa lanaldi osoan egingo da, kontratu mugagabearen modalitatean, Langileen Estatutuaren 15. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Lantokia Donostiako instalazioak izango dira, baina bidaiak egin ahal izango dira bezeroengana, hornitzaileengana edo zerbitzuaren xedearekin lotutako beste erakunde batzuetara.

### **LANPOSTUAREN ORDAINSARIA**

Lanpostuaren ordainsaria Arduradunarena da, KGNZren soldata-taularekin bat, oinarri hauen 1. eranskinean.

### **LANPOSTURAKO BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK**

a) Titulazioa: Unibertsitate-graduako titulazioa. Kultur kudeaketan eta/edo Proiektuen kudeaketako prestakuntza espezifikoa baloratuko da.

b) Euskara: C1

c) Ingelesa: B2.

d) 3-4 urteko esperientzia profesional egiaztatua jarduera-arloan, programa eta aurrekontuen kudeaketan, eta lanpostuaren antzeko erantzukizun-mailarekin nahiz kategoria profesionalarekin edo baliokidearekin.

Kultura-programen kudeaketan eta/edo talde edo departamentuen arteko koordinazioan izandako esperientzia baloratuko dira.

Betekizun espezifiko horiek, nolana ere, baztertzailak dira.

## LANPOSTUAREN DESKRIPZIO NAGUSIA

### Funtzio nagusiak:

- Urteko programazioa planifikatzea, arloko buruekin, arduradunekin eta zentroaren Kultura Zuzendaritzarekin koordinatuta.
- Tabakalerako erakunde eta eragile desberdinek gauzatutako jendaurreko programazioaren eskaintza koordinatzea.
- Jarduera eta programak sustatu eta koordinatzea, kanpoko eragileekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan, programazioaren ikuspegi globala ematen.
- Edukien arloko proiektuen kudeaketa gainbegiratu eta jarraitzea.
- Programazioaren koordinazio-mahaia zuzentzea.
- Programa koordinatu eta egikaritzeko zeharkako taldearen jarduera eta helburuak planifikatu, esleitu eta jarraitzea.
- Kultura Zuzendaritzarekin batera programazio-aurrekontu orokorra gainbegiratu eta jarraitzea.
- Online programazioa planifikatu nahiz koordinatzea eta aurrekontu-jarraipena egitea.
- Ekoizle eta arloko arduradunekin batera programazio publikoa osatzen duten jardueren behar teknikoak eta ekoizpenekoak koordinatu eta gainbegiratzea.
- Komunikazio-sailarekin koordinatzea, programazio publikoa hedatzeko komunikazio-euskarri eta -kanal guztietan.
- Kontratazio-arloarekin koordinatzea, programako jardueri begira prestatu beharreko akordio, lankidetzeta eta kontratuak zuzen kudeatzeko.
- Sail edo atalaren urteko planak finkatzea, ezarritako helburuak lortzeko.
- Epe ertain edo luzean kudeatzea zentroaren urteko planean edo programazioan jasotako jarduerak eta programa.
- Arloari esleitutako sail edo atalaren helburuak bete direla kontrolatzea.
- Sail edo atalean garatu beharreko zerbitzu eta helburuak proposatzea.
- Sail edo atalaren sistema eta prozedurak diseinatu eta ezartzea.
- Hala badagokio, helburuak esleitzea, horien jarraipena egitea eta sail edo ataleko taldearen jarduna kudeatzea.
- Hala badagokio, barneko taldea osatzen duten pertsonen jarduerak antolatu eta planifikatzea.
- Giza baliabideen politikak ezartzea sail edo ataleko taldean, egonez gero.
- Sail edo ataleko pertsonak kudeatu, garatu eta motibatzea, egonez gero.
- Zeharkako eta sailarteko programazio-taldearen bilerak zuzentzea.
- Erakundea ordezkatzeko jarduketa-eremuari buruzko edukietan.
- Harreman- eta eragin-sareak sortu eta horietan parte hartzea.
- Gatazken ebazpena kudeatzea.
- Zentroaren programazioaren eta proiektuen hedapen eraginkorraren alde egitea, Komunikazio Sailarekin lankidetzan, arduradunak xede horretarako esleitutako funtzioak aurrera eramanda.

- Taldearekin batera, sail edo atalari esleitutako aurrekontua proposatu egikaritu, jakinarazi eta jarraitzea.
- Goiko arduradunekin batera, azpikontratatu beharreko zerbitzuaren beharra eta irismena identifikatzea.
- Sail edo atalak azpikontrataturako zerbitzuen jarduera eta emaitzak kudeatu eta ebaluatzea.
- Kanpoko edo azpikontrataturako zerbitzuaren bitartekariarekiko harremana mantendu eta kudeatzea.
- Kudeaketa-txostenak prestatzea, azpikontrataturako zerbitzuak kontrolatzeko.
- Kontratazio-agiri teknikoak definitzea.
- Goiko arduradunekin batera, kontratazio txikien beharrak definitzea.
- Sail edo atalarekin lotutako jarduera eta zerbitzu berriak proposatu eta garatzea.
- Urteko planetan hautemandako hobekuntza-arlo eta -ekintzak sartzeko.
- Arloko prozesuen hobekuntza kudeatzea.
- Zerbitzuaren iradokizun eta erreklamazioak kudeatzea.
- Zeharkako proiektu korporatiboetan parte hartzea.
- Deskribatutakoez gain, lanpostuak kategoriatxikiagoko erantzukizunak izan ditzake, arloaren antolakuntzaren arabera.